


## Kultura

Jose Angel Uberuaga 'Ube': "Emakumearekiko jazarpenari buruz jarduteko erlijio guztiei egiten diet erreferentzia erakusketan" > 11



## Euskahaldunen Korrika

Astelehenean, Elgetatik (Gipuzkoa) Elorrion igarotzeagaz batera sartuko da Korrika Durangaldera. Zornotzara, berriz, martxoaren 29an helduko da. Euskararen aldeko lasterketaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean. > 2-3



## Bonbardaketaren aztarnak bisitatuko dituzte Durangon

Durangoko bombardaketaren 78. urteurrenean, besteak beste, eraso horrek herrian utzitako aztarnak bisita gidatu baten bidez aztertuko dituzte. > 4

## Futbolari ohiek partidu solidarioa jokatuko dute

Elorrion, martxoaren 29ko partiduan jasotakoa Kainaberarentzat izango da. Aurretik Jose Mari Igartua eta Jose Mari Zenitagoia omenduko dituzte. > 9



## DRT igoera fasea jokatzeko prest

Durango Rugby Taldeak Oho-rezko Mailarako igoera fasea jokatuko du, joan zen asteburuan Uribealdeari 20-10 irabazi ostean. Ines Etxegibelen ustez, "jokalarien konpromisoa eta lanerako ahalmena" dira taldeak lortutako arrakastaren gakoa. > 16

**Kaixo!**  
ireland

Uda Irlandan gozatu  
Irlandako familia batekin  
ingeleza ikasten

Jar zaitetz gurekin harremanetan!

www.kaixoireland.com



## Durango > 6

Lan Ikuskaritzak "arau-hauste larria" ikusi du Enplegu Planean

## Garai > 10

Lursaila ez kentzeko eskatu dio nekazari batek Garaiko Udalarari

## Mañaria > 6

Markomin Goikoa harrobiko plan berezia berrikusi du udalak

## Iurreta > 8

Elkartasun eta abentura bidaia antolatu dute Marokora

## Herririk herri



Orain bi urteko Korrika, Mallabian.



Korrikaren aurreko aldia Traña-Matienatik Astolara (Abadiño).

# Euskahaldunez beteta dator Korrika 19 Durangaldera bisitan

Elgetatik Elorriora sartuko da astelehenean Korrika; Durangaldea zeharkatu ostean, Mallabitik irtengo da


**DURANGO** Jone Guenetxea Badator Korrika 19 Durangaldera. Elgetatik (Gipuzkoa) Elorriora sartzeagaz batera helduko da euskararen aldeko lasterketa Durangaldera. Datorren astelehenean, martxoak 23, Elorriora 13:05ean helduko dela kalkulatu du AEK-k. Durangaldea hainbat kilometro egin eta gero, Ermutik Eibarrera irtengo da Korrika 17:00 aldera.

Lasterketaren azken txanpan, Korrika Zornotzan sartuko da; izan ere, martxoaren 29an igaroko da bertatik, 03:41ean, Bilbora bidean. Goizeko ordu txikietan zapatilak jantzi, eta Korrika egitea tokatu zaie aurtentzako zornotzarrei. Hala ere, korrikalariei ez zaie kemenik falta, AEK-ren ekimenari babes emateko parte-hartze zabala izango delako. Abadiñon, esate baterako, lehen aldiz Atxarte egoitzako 30 lagunek Korrikan parte hartuko dute.

Durangaldeko herri askotan Korrikaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte: bertso eta antzerki saioak, kontzertuak eta txitxi-burduntzia, besteak beste.

Martxoaren 24an Korrika Txiki berezia egingo dute Durangon. Herrian zehar lasterketa egin ondoren, Durangoko ikastetxeetako umeak eta gazteak Landako Gunean elkartuko dira *flashmoba* dantzatzeko. Dena behar den moduan irten dadin ikastetxeetan ikasleak finfin ibili dira koreografia ikasten, Korrikaren abestia ardatz hartuta.

Mallabian Korrika Batzordea eratu dute aurtentzako zornotzarrei, lasterketaren inguruan giroa berotzeko. Egitarau horren barruan, ekitaldi berezi bat prestatu dute: Bertso Desafiyua. Markina eta Gabiria izango dira aurrez aurre biher, herriko elkartean, gazte taldeak antolatuta.



## KORRIKA 19 DURANGALDEAN



**MARTXOAK, 23**  
astelehena

Elgetatik Elorriora 13:05ean sartuko da Korrika 19, eta orduan helduko da Durangaldera. Ondoren, Atxondo, Abadiño, Durango, Iurreta, Durango, Abadiño, Berriz, Zaldibar eta Mallabia zeharkatuko ditu.



**MARTXOAK, 29**  
domeka

Zornotzatik guez pasatuko da Korrika. 03:41ean Zornotzan sartuko dela aurreikusiko dute antolatzaileek. Gero, hainbat herritatik pasatu, eta Bilbon amaituko da Korrika 19.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko martxoaren 20a,  
13. urtea - 582. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia,

Ibaso Martinez de Arenaza

Yarza, Amaia Huarte Basabe.

**Erredakzioa:**

Aitziber Basauri Gandiaga,

Itsaso Esteban Urriaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Markel Onaindia Txabarri,

Amaia Ugalde Begoña,

Martxel Zubia Arrinda,

Eneko Azurmendi Barrena.

**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.


### Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**ATXONDO****Martxoaren 23an**

13:00etan, Korrika Txikia irtengo da eskolatik. Korrikari ongiatorria.

**BERRIZ****Martxoaren 21ean**

09:30ean, sagardotegira irteera (Beinke).

**Martxoaren 23an**

16:30ean, umeentzako jolasak (Pagotxa).  
16:30etik 19:30era Erromeria.com (udala) eta txokolate ogitartekoak.

**DURANGO****Martxoaren 23an**

12:00etan, familia argazkia Andra Marian.

**Martxoaren 24an**

15:00etan, Zabalarra eskolan hasita, Korrika Txikia.

**ELORRIO****Martxoaren 27an**

22:00etan, Arriola antzokian Gose taldearen 'Gosariak'.

**Martxoaren 28an**

21:00etan, bertso afaria Maialen Lujanbiogaz eta Andoni Egañagaz, Gazetako lagunarte elkartean.

**IURRETA****Martxoaren 23an**

Korrika aurretik triki-poteoa.  
11:15ean, institutuan txixi-burduntzi egingo dute.  
Korrika pasatu ostean, Korrika Txikia.

**MALLABIA****Martxoaren 21ean**

Bertso Desafiyue, Gabiria-Markina, 22:00etan, herriko elkartean (gazte taldea).

**Martxoaren 23an**

14:30ean, Korrika Txikia (eskola).  
17:00etan, txixi-burduntzi egingo dute (guraso elkartea).  
18:00etan, pailazo ikuskizuna (gazte taldea).

**Martxoaren 27an**

'Oroitzapenak' antzezlanak kultur etxeko aretoan Joseba Usobiaren eskutik (udala).

**OTXANDIO****Martxoaren 26an**

14:30ean, Korrika Txikia eskolatik plazara.  
18:00etan, kultur etxean 'Beltzean mintzo' dokumentala.

**Martxoaren 28an**

17:30ean, Korrikara autobusa Ubideitik Barazarrera.  
20:00etan, luntxa eta kantautorea gaztetxean.  
20:00etan, luntxa eta kantautorea gaztetxean.

**ZALDIBAR****Martxoaren 23an**

14:30ean, Korrika Txikia.  
16:30ean, txokolatea, txorizo ogitartekoak eta ura (guraso elkartea).  
Urdaiazpikoa, sagardoa eta ardoa (udala).

**ZORNOTZA****Martxoaren 26an**

10:30ean, Korrika Txikia. Andra Mari ikastolatik Zelaieta parkera.

**Martxoaren 28an**

19:00etan, Zornotza Aretoan bertso saioa: Jon Maia, Unai Iturriaga eta Jone Uribe (Nañon).  
21:00etan, Daltondarrak tabernarik taberna.

**Fernan Ruiz | Durango, 1958 // Julio Aranguena | Durango, 1962**

# Euskahaldunak

Bi euskaltzaleren esperientziak lehen pertsonan kontatuta

**DURANGO** **Jone Guenetxea** **Fernan Ruiz AEKn eskolak ematen ibilia da, eta, azken urteotan, Berbaro euskara elkartean dabil euskara teknikari. Julio Aranguena, berriz, AEK-ko arduraduna da. Biak dira euskaldun berriak, eta, nahi izanez gero, euskahalduntzea posible dela erakusten dute kasu bi hauek.**

**Zelan erabaki zenuten euskara ikastea?**

**Julio Aranguena:** Umetatik nuen nahiko argi aitaren hizkuntza –euskaldunen hizkuntza– ikasi eta erabili behar nuela. Aitaren hizkuntza diot, amak –ulertu arren– ez zuelako euskaraz berba egiten. 19 urte nituela, umetako asmoa gauzatu nahian, euskara ikasten hasi nintzen Durangoko Abarrak AEK euskaltegian. Bertan bi urte eman nituen eskolak hartzen, eta, bitartean, udan, Kortezubiko barnetegian egon nintzen mintzamina lantzen. Sasoi hartan euskararik apenas entzuten zen kalean, ez zen eskola publikoetan irakasten, ez eta pribatu gehienetan ere, eta gure gizarte txikitik desgertzeko zorian zegoen. Hala ere, urte batzuk lehenago izandako Francoren heriotzak garai hobearen itxaropena ekarri zion orduko gizarteari, baita Euskal Herriari eta euskarari ere. Hala, euskal herritarrongan herri kontzientzia zabalduz joan zen,

eta horrek euskara ikasteko motibazioa handitzea eragin zuen. Seguru asko, Amets Arzallusen antzera, neuk ere pentsatuko nuen honelako zezoz: “Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen”.

**Fernan Ruiz:** Nire kasuan, gure ama euskalduna zen, eta umetan etxean euskaraz egiten genuen. Nerabazarora heldu arte, aita kanpotarra zenez, euskara eta gaztelania izan ziren etxeko hizkuntzak. Beraz, neurri batean, euskaldun jaio nintzen. Ondoren, *erdahaldundu* egin nintzen. Durango herri oso erdalduna zen, eta esparru guztietan erdararen komunikaziorako hizkuntza. 60ko eta 70eko hamarkadei buruz ari naiz. Udala frankista zen, eta horrek ere bere eragina izan zuen. 1979an soldadutzara joatea tokatu zitzaidan. Horrek balio izan zidan nor naizen konturatzeko. Barruan lo nituen sentimendu identitario batzuk iratzarri zitzaizkidan. Itzultzean, gau eskoletan hasi nintzen euskara ikasten.

**Sasoi horretan imajinatzen zenuten zuen ogibidea euskararen ingurukoa izango zela?**

**J.A.:** 21 urteko gaztea nintzen, Ibon Aromak, sasoi hartako Durangoko AEK-ko gau eskolaren arduradunak, ikastaro batean parte hartzera gonbidatu ninduen, euskara eskolak ematen ikasteko. Nik gustuko nuen

euskara, eta baita euskaradunak sortzea ere, eta, beraz, baietz esan nion, parte hartuko nuela. Ikastaroa egin eta handik gutxira berriro deitu zidan Ibonnek. Nahi zuen eskolak ematen hasi nendin. Nik, eskaintza larregi aztertu barik, baietz erantzun nion. Horrela hasi nintzen AEKn lanean; hasi, eta orain arte jarraitu. Eta ziur diot glotodidaktika ikastaro hartan esku hartu zuen 21 urteko gazte hark ez zuela pentsatzen 53 urteko gizon hau zeregin eta ardura berberetan ibiliko zenik; ezta hurrik eman ere. **F.R.:** Nik fabrika batean egiten nuen lan, administrazio kontuetan. Han ere euskarak balio izan zidan bezero batzuekin euskaraz jarduteko. 80ko hamarkada sasoi gogorra izan zen hainbat arlotan. Metal arloan nenbilen, eta krisi handia zegoen. Lantegia txarto zebilen, eta alde egin nuen. Beste bide batzuk topatzen hasi nintzen, eta AEKn jendea behar zen. Euskalduntzea gorantz zihoan, eta lana eskaini zidaten.

**Euskaldun berriaren paperean egon izanak laguntzen dizu ikasleen egoera ulertzen?**

**J.A.:** Nik baietz esango nuke. Izan ere, ikasle nintzela izan nituen zalantzen, gainditu behar izan nituen oztopoen eta bizi izan nituen egoeren oso antzekoak izaten dituzte oraindik orain hainbat eta hainbat ikasle; eta antzekotasun horrek dezente

laguntzen dit ikasleen beharrak asetzen. Edo hori uste dut.

**F.R.:** Hasieran beharbada ez, baina urte batzuetako esperientziagaz uste dut baietz. Orain ez naiz irakasle, eta gehiago ulertzen ditut. Ikasleentzat ahalegin handia da. Berbalagun talde batean nago, eta taldean badago ikasten dabilen baten bat. Beti esaten diet ezin dela sufritzera joan euskara ikastera doazenean. Ez euskara, ez beste ezer ezin da horrela ikasi. Beste modu batera bizi behar da hori. Ulertzen dut batzuek ahalik eta arinen ikasi gura izatea, baina gaurtik biharra ezin da izan. Bestalde, gaur egun, ikasteko motibazioa, neurri handi batean, instrumentala da; lantokian euskara eskatzen digutelako joaten gara ikasten. Ondo dago, baina osagai identitariora galdu egin dugu.

**Zelan bizi duzue zuek Korrika?**

**J.A.:** AEK-ko langileontzat Korrika urtea lan gehigarrien urtea da. Denetarik egiten dugu. Bestalde, Korrika lehergailu emozionala da euskaltzale guztiontzat, eta euskararen aldeko motibazio-bonbak jaurtitzen ditu etenik barik, zeharkatzen dituen lekue-tatik Euskal Herriko toki guztietarantz.

**F.R.:** Beste jaialdi handiekin ezin daiteke alderatu. Mezua zabalteko oso egokia da, eta hunkigarria ere badela esango nuke. Edizio guztietan parte hartu dut.

# Durangoko bonbardaketaren aztarnak erakutsiko dituzte

Martxoaren 31n, 78 urte beteko dira faxistek Durango bonbardatu zutenetik



Irazabal eta Irigaras, eguazteneko prentsaurrekoan.

**DURANGO** Markel Onaindia 78 urte beteko dira martxoaren 31n faxistek Durango bonbardatu zutenetik. 300 hildakotik gora eragin zituen erasoak, zaurituak ere ugari, eta herrira suntsipen handia ekarri zuen. Hain zuzen ere, eraikinetako hormetan bonbardaketak utzitako aztarnak erakutsiko dituzte martxoaren 28an. 10:30ean hasiko da, eta 946 818 066 telefonoan izen-emateko eskatu dute.

Aitziber Irigaras alkateak eta Jon Irazabal Gerediaga elkarreko kideak eman zuten ekintzaren berri, martxoaren 31ren harira landutako egitarauaren aurkezpenean. Irigarasek adierazi zuen Durango “tragedia baten biktima” izan zela: “Ez Durangon, ez beste inon, berriro gertatu ez dadin, iragana ondo aztertu eta ondorengoei azaldu behar diegu”. Irazabalen berbetan, gazteekiko transmisioari

garrantzia eman diote Kriskitinegaz batera landu duten 31ko oroimen ekitaldian, eta Izaro Andres kantariak eta Eneko Sagarroy aktoreak parte hartuko dute. 20:00etan hasita, lore eskaintza Gregorio Urionaguenak eta Juana Lejarretak egingo dute. Bestetik, 12:00etan, 36ko gerraren biktimak omenduko ditu udalak hilerrian. Aparte, 24tik 31ra gerrako umeen erakusketa egingo da Landako Gunean.

## 26.000 euro batu ditu ‘Marea laranja’-k

Ikerketara bideratuko da domekan batutako dirua

**DURANGO** M.O. Kamiseta guztiak saldu zituzten, tonbolan 5.000 euro atera, zozketako 4.500 billete saldu... Ekonomikoki arrakasta edukizuen leuzemiaren kontra domekan egindako maratoni solidarioak. Guztira, 26.000 eurotik gora lortu zituzten *Marea laranja*ren sustatzaileek, eta Gurutzetako ospitaleko ikerketara bideratuko dute dirua.

Lorpen horri garrantzia kendu barik, arrakasta handiena jendeak erakutsitako elkartasunean eta parte-hartzean egon

zen. “Onera jendeak zeinen ondo pasatu zuen ikustea izan zen. Jaialdia bere egin zuen jendeak”, esan du Susana Del Amo antolatzaileak. Goizetik arratsaldera herritarrez lepo egon zen Merkatu plaza. Krosean, xakean eta zumban ehunka lagunek parte hartu zuten. Ikaragarria izan zen Merkatu plaza beteta ikustea zumbaren erritmoan dantza egiten.

Gainera, hezur-muina ematearen inguruko berbaldietan aretoak bete egin zirela-eta, pozik agertu da Del Amo.



Zumba dantzatzeko bete egin zen Merkatu plaza.

## Erregistro zibila ez pribatizatzeko eskaera egin du PSE-EEK

**DURANGO** M.O. Espainiako Gobernuak erregistro zibila pribatizatu gura duela ohartarazi du PSE-EEK, eta proiektu horren kontrako mozioa aurkeztuko du datorren martitzeneko udalbatzarrean. Azaldu dutenez, erregistro zibilaren zerbitzuak merkataritzako erregistratzaileei emateak etorkizunean ordainpeko zerbitzua izateko aukera zabaltzen du. “Ez da bidezko neurria, zerbitzu horretan egiten diren hainbat tramite nahitaezkoak direlako herritarrentzat: jaiotza agiria, amatasun edo aitatasun aitortza, eta izen-abizen eta sexu aldaketa eskariak, besteak beste”.

PSE-EEren arabera, estatu mailan 3.500 lanpostu galduko dira, pribatizazioa helduz gero. Gainera, sozialistek kritikatu dute bake epaitegiak kentzea sustatuko dutela, eta, ondorioz, durangarrek Bilbora joan beharko dutela. Bestalde, azken urteetan egindako 128 milioi euroko inbertsioa galduko dela ere ohartarazi du PSE-EEK.

## Arartekoa ipintzeko ideia, DAZen inkestan

DAZek hainbat gairen inguruko inkesta hasi du

**DURANGO** M.O. Alde Zaharreko DAZ auzo elkarteak inkesta bat egingo du auzokideen artean, arazo eta beharrez inguruan duten iritzia zein den jakin guran. Zaborrak, garbitasuna, zaratak, segurtasuna, espazio publikoaren erabilera, karkabak eta administrazioarekiko harremana dira landutako gaiak. “Jendea hurreratzen zaigulako proposatu dugu inkesta”, azaldu du DAZeko Agurtzane Irigorasek. Auzotarren kezka iturri dira aspalditik gai horiek: “Inkestagaz erakutsi gura dugu bizilagunek babesten gaituztela”. Apirilaren 7a baino lehen entregatu

behar dira orriak elkarteak Pinondo Etxean duen buzoian, edo Trapuzahar, Txoko Gozo eta Alberto Ileapaindegia komertzioetan. Inkestaren emaitzak psikologo bigaz aztertuko dituzte, eta horren ostean jakinaraziko dituzte zeintzuk diren.

DAZeko Jose Mari Arrillagak gogor kritikatu du udala, harreman faltagatik, eta, gai horrekiko kezkatik abiatuta, ararteko bat ipintzeko ideia proposatu dute inkestan. Irigorasen arabera, hauteskunde ostean tratatu ona eduki gura dute udalagaz: “Ahal den heinean, udal gobernu berbera izan zein ez, aro berri bat hasi gura dugu”.



DAZ elkarteak kideak prentsaurrekoan: Irigaras erdian eta Arrillaga eskuman.

## Sapuetxen aro berri bat hasiko dute bihar

Beste izaera bat eman gura diote Sapuetxeri

**DURANGO** M.O. 1999an gazteentzako espazio bat zabaltzeko asmoz okupatu zuten Sapuetxe, Montevideo kalean, erreka gainean, hutsik geratu zen etxebizitza-erakina. Hamasei urtez zenbait gazte belaunaldi pasa dira bertatik. Aisialdi eskaintza programatzeaz gainera, ekimen sozialen bilgune ere izan da; AHTaren kontrako borrokarena, adibidez. Baina, azken boladan gazteen errelebo falta dagoela-eta, aldaketa sasoi bizi dute Sapuetxen. Hainbat adinetako herritarrek osatutako lagun-talde batek beste izaera bat eman gura dio erakin okupatuari, eta bihar hasiko dute aro berria. Sapuetxeren berrinaugurazioa izango da.

Sapuetxeko asanbladako kide batek “Otik hasi” gura dutela azaldu du. Baina oraindik ez dute eraikinaren filosofia berria zein izango den zehaztu. Mugimendu sozialen etxe bihurtzea da buruan duten ideietako bat, baina hausnarketa aurrerago egingo dute. Izan ere, duela hiru hiletik obretan murgilduta ibili dira: taberna eraberritu

dute, eta lehenengo pisuan ere obretan dabilta, sukaldea atontzen, besteak beste. Hain zuzen ere, etxe bloke handitik espazio bi horiek bakarrik erabiliko dituzte momentuz. “Jendeak proiektuak egiteko ilusioa badauka, goiko pisuak erabiltzeko aukera egingo da”, adierazi du Sapuetxeko kideak. Hogeitabat laguneko taldea dabil lanean.

Azken boladan gazteen errelebo falta dagoela-eta, aldaketa sasoi bizi dute Sapuetxen

### Bihar, jaialdia

Taberna berriztuta dago, eta bihar emango diote hasiera aro berriari. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta arratsaldetik aurrera kontzertuak egingo dira ikusgai. 17:00etan, esaterako, folka eta punka uztartzen dituen Ganorabakoak taldeak joko du, Mañarian aurten sortu den taldeak.



YOLGA MILERA  
Elorrio Hazi Araziko zuzendaria

## Lan Ikuskaritzak “arau-hauste larria” ikusi du udalaren Enplegu Planean

Enplegu Planaren atzean “dirua aurrezteko asmoa” ikusi du EH Bilduk



Durangoko EH Bilduko Dani Maeztu, Eider Uribe, Ion Andoni del Amo eta Iker Urkiza.

**DURANGO** Markel Onaindia Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Enplegu Planaren barruan, Lanbidek 162.000 euro eman zizkion Durangoko Udalari, eta azken horrek sei hilerako hamabi behargin kontratatzea erabaki zuen brigadako lanetarako. Baina kontratazio hori gizarteratzea sustatzen duen Zabaltzen-Sartu erakundearen bitartez egin zuen. Beharginei sektoreko hitzarmena ezarri zitzaion, udal hitzarmena beharrezkoan. Horrela, sei hileko epean, bakoitzak 3.000 euro gutxiago jaso zituen, ELA sindikatuak

urrian egindako kritikaren arabera. Gainera, brigadan zazpi behargin bajaran zeuden; beraz, langileak behar ziren. ELAk salaketa ipini zuen urrian, “kontratazioa ilegala” zelakoan, Zabaltzen-Sartu ez delako aldi baterako enpresa. Bada, Lan Ikuskaritzak “arau-hauste larria” dela esan du ebazpenean.

EH Bilduko kideek eman dute ebazpenaren berri. Azaldu dute udalean ez dietela ebazpen hori erakutsi, baina beste bidetara irakurtzea lortu dutela. Urrian ELAk esan bezala, udalaren erabakiaren atzean

“dirua aurrezteko asmoa” ikusi dute EH Bildukoek: “Langileen kontura egin dute. Lotsagarria da”. Azkenean, baina, ez dela dirurik aurrezteko esan dute. Izan ere, kontratazioaren gastuetarako 73.000 euro erabili zituen. Diru horregaz, udal hitzarmena estali zitekeela ohartarazi dute. Ikuskaritzaren ebazpenaren ondorioa isun bat izango dela uste dute, eta ez langileei dirua bueltatzea, otsailean amaitu zirelako kontratuak.

Martitzeneko udalbatzarrean, udal zerbitzuen azterketa bat egitea proposatu dute.

## Markomin Goikoako plan berezia berrikusi dute

Harrobiaren jarduera arautu eta mugatu dute

**MAÑARIA** M.O. Iaz Markomin Goikoa harrobi-rako plan berezia landu zuen Mañariko Udalak. Harrobiaren jarduera arautzea eta muga batzuk ezartzea da plan horren helburua, eta, udalbatzarrean onartu ostean, alegazio epea zabaldu zuten. Bada, fase hori ere amaitu da, eta joan zen bari-kuan berrikusi zuten.

Endika Jaio alkateak azaldu du alegazioak aurkeztu dituztela harrobiaren ardura duen en-

presak, partikularrek eta Jaurlaritzako Ingurumen Sailak. Adibidez, erreka alboan harea piloak dauzka enpresak, eta inguru hori berreskuratzeko plana sei hiletan aurkeztu beharko du, urtebetean beharrezkoan.

Jaiok adierazi du plan hau “aspaldi” egin behar zela, 2002ko udal arauak eskatzen zutelako. “Ingurumenari ahalik eta min gutxien egitea” izan da oinarria. Txostena Aldundira bidaltzea da hurrengo pausoa.

## AHTaren gaineko galdeketaren urteurrena gogoratuko dute

**ATXONDO** J.D. Martxoaren 25ean, datorren eguaztenean, zortzi urte egingo dira Atxondon AHTaren gaineko herri galdeketa egin zutenetik. Data hori gogoratze-ko, hainbat ekimen prestatu

dituzte herritarrek. Astelehen arratsaldean AHTaren gaineko horma-irudi bat marraztuko dute herriko sarreran. Martitzenean, 19:00etan, ingurumenari lotutako bideo emanaldia izango da gaztetxean, eta, eguenerako, ordu eta toki berean, Atxarteko harrobiaren kontrako borroka gertutik bizi izan zutenekin hitzaldia antolatu gura dute.

2007ko galdeketa 471 herritarrek parte hartu zuten, eta 468k AHTari ezetz esan zioten.

# Pelikuletan bezala!

ADINA: DBH 3-rik unibertsitateko lehen mailara  
DATAK: uztailen

### NW YOUNG LIFE CAMP

3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND 1.995€

### HOMESTAY LINGUISTIC

4 aste FAMILIAN jingalea Intentsiboa!

SEATTLE 1.795€

### NW ADVENTURE CAMP

3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND 1.995€

### MAINE ADVENTURE

4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO EKINTZAK

LEWISTON/PORTLAND 1.995€

**Azkenengo plazak!**

Egonaldia familia batean! Prezioan dena barne dago!

www.summerintheusa.com web orrian sartu eta "Inscripción" en klikatu.

INFORMAZIO GERTUAKO: 943 23 47 32  
EMAILA: office@summerintheusa.com

LOREZAINZA

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

HOSTOENTZAKO  
HAIZE-MAKINA



MOTOZERRA



ZULAGAILUA



AREA



SASIAK GARBITZEKO  
MAILU-MAKINA



BIOBIRRINGAILUA



ENBORRAK  
ZATITZEKO MAKINA



ADAR-  
BIRINTZAILEA



GASOLINAZKO  
MOTORDUN AITZURRA



BELARRA  
MOZTEKO MAKINA



LOREZAINZARAKO  
TRAKTOREA



ZANGA EGITEKO  
MAKINA



Eitua industriagunea, 71C · 48240 BERRIZ (Bizkaia) · 946 824 550 · [alkimax@alkimax.net](mailto:alkimax@alkimax.net)

[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



# Elkartasun eta abentura bidaia Marokoko basamortura

Basamortura Eskuzabal proiektuko kidea da Eneko Barroeta iurretarra



Argazkian ezkeretik hasita hirugarrena da Eneko Barroeta.

**IURRETA** Amaia Ugalde Bizikleta hartu, eta sei egunez Marokoko basamortuan *Titan Desert by Garmin* lasterketan parte hartuko dute Basamortura Eskuzabal ekimeneko kideek. Lea-Artibaiko eta Mendaroko bost lagunekin batera, abentura horretan murgilduko da Iurretako Eneko Barroeta. Apirilaren 27tik maiatzaren 2ra izango da muturreko bizikleta proba, baina bertan parte hartzea ez da izango euren helburu bakarra: 6.000 euro baino gehia-

go batu gura dituzte medikamentu eta arropetan, eta euren bidaia laguntza solidarioa bideratzeko aprobetxatu.

Ander Txakartegi berriatuarren ekimenez hasi zen bizikletazaleen taldea elkartzen. Orain, Marokorako euren bidaia eta laguntza bidaltzeko modua prestatzen dabiltzala azaldu du Eneko Barroeta iurretarrak.

#### Bertso saioa domekan

Etzi bertso saioa egongo da Berriatuko pilotalekuan, 17:30ean,

ekimenari laguntzeko. Nerea Ibarzabal, Eneko Abasolo *Abar-kas*, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Jon Maia izango dira bertsolariak.

#### Amatxorbe elkarte

Iurretako Amatxorbe elkartearen bidez egingo dute laguntza solidarioa bideratzeko lana. Amatxorbe kirola eta elkartasuna uztartzen dituen elkarte da, eta 2012an sortu zuten, Panda Raid auto proba solidarioan parte hartzeko.

#### IURRETA A.U.

Bidebarrieta kaleko galtzadak ez dauka malda egokia, eta horrek, euria egiten duenean, putzu handiak sortzea eragiten du. Euri-urak egoki bideratzeko obrak egiten hasi dira. Hainbat konponketa egingo dituzte: euri-urak biltzeko saretadun kutxatilen ordeztu, isurbideak ipiniko dituzte, eta hodi berriak ere jarriko dituzte ura garraiatzeko. Gainera, espaloien eremuan hormigoizko ertz-erretena egingo dute, ura batu eta isurbideetara bidaltzeko.

Bide batez, galtzada konponitzeko lanak ere egingo dituzte. Dauden bigungune eta zuloak hormigoizko zoladuraren bidez konponduko dituzte. Lanak hamabost egunean amaitzea aurreikusiko dute.

## Bidebarrietan putzuak ez sortzeko lanean dabiltza

Galtzadatik euri-urak bideratzeko obrak dira



Hamabost egunen buruan lanak amaituta egongo direla aurreikusiko dute.

## Diseinu lehiaketa antolatu dute institutuko agendarako

#### BERRIZ Martxel Zubia

Datorren ikasturteko DBHko agendaren azala eta kontrazala diseinatzeko lehiaketa deialdia egin du Berrizko Udalak. DBHn matrikulatuta dauden gazteei zuzenduta dago, eta gaia librea izango da. Neurriak 15x20 zentimetrokoak izango dira. Lana euskarri gogor baten gainean eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, eta lelo bat jarri beharko zaio. Ondoren, gutun-azal batean leloa eta adina idatzi, eta barruan izena, abizen biak, NA, egilearen helbidea eta telefonoa adierazi beharko dira. Guztira, hiru sari banatuko dira: lehenengoa, 150 euroko bonua; bigarrena, 100 euroko bonua; eta zozkatutako saria, 50 eurokoa. Diseinu guztiak ikusgai izango dira agendan.

## Konposta egiten eta josten ikasteko aukera apirilean

#### OTXANDIO J. Derteano

Udaleko Kultura Batzordeak jostintza eta konposta ikastaroak martxan ipiniko ditu apirilean. Izena emateko azken eguna apirilaren 10a da, eta udaletxean eman beharko da izena; otxandiarrentzat 10 euro da, eta gainerakoentzat 12. Jostintza ikastaroa ez dute zeroetik hasiko. Maila baxu-ertaina dutenei zuzenduta dago, eta, josten ikasteaz gainera, sormena lantzen ikasiko dute. Apirilaren 15ean, 22an eta 29an, eta maiatzaren 6an izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Janari hondarrek konposta eginda ongarrira lortzeko ikastaroa apirilaren 16an, 23an eta 30ean izango da, 18:00etatik 20:00etara. Irailean beste saio bat antolatuko dute.

#### SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



#### Durangaldea haziarazi

Durangoko Alkate zan Juanjo Ziarrustak maiz esaten eban, Oiz menditik behera begiraturuz gero, gure bailaran ez gendukela mugarik ikusiko. Eta egia da. Horrek ez dau esan nahi Udalerri bakoitzak bere mugak ez dituenik, edota herriok, gure izaera alde batera lagata, udalerri bakar bat egin behar dogunik. Ez. Esangura askoz be sakonagoa da: Durangaldea osatzen dogun herriek helburu erkideak partekatzen doguzala esan nahi dau, gure etorkizuna alkarregaz eraikitzeko bide beretik goazela, eta eskualde honetan dan-danak garela beharrezkoak. Gure geroa lortzeko mugarik ez.

Horretara lan egin dogu EAJko kideok betidanik. Gutariko bakoitzarentzat bere Udalerria lehentasuna da, baina jakin badakigu Durangaldearen etorkizuna gurea be badala, eta, guztion lana elkartuz gero, errazagoa dala aurrera egitea. Horrexegaitik hilaren 19a egun berezia izan zan, hain zuzen be, egun horretan bertan Durangaldeko herrietan gure zerrendaburuak aurkeztu genduzalako, non eta Landako Gunean. Argi eta garbi, beste alderdi batzuek ez bezala, hautagaiaren ezkutaketan jokatu barik.

19an gure hautagaiak aurkeztu genduzan. Bertako pertsonak, ezagunak, gure gizartean errotoak. Zintzotasunez jarduteko konpromisoa hartu dabon andra-gizonak, eta, politika gaitzesten dan giro honetan, aurrerapausoa emoteko gertu dagozan gizon-emakumeak. Eguneroko lanean euren ahalegina jartzeko prest dagozanak. Gure eskualdearen etorkizuna amestu eta berau egia bihurtzeko gogotsu dagozanak. Durangaldea haziarazi.

# hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 946 810 776



info@hitzliburudenda.com

A. Urreta  
podólogo

**Podinara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10, behea  
 48200 - DURANGO  
 Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406



# Futbolari profesional ohiek partidu solidarioak jokatu dituzte

Martxoaren 29an, jaialdi solidarioa izango da Eleizalde futbol zelaian



Ekimenaren sustatzaileak eta Kainaberako kideak, Jose Angel Iribar Athleticeko beteren taldeko presidentea ere etorri zen.

**ELORRIO** Joseba Derteano Martxoaren 29a futbolagaz gozatzeko elkartasuna adierazteko eguna izango da. Futbolari profesional ohiek osatutako zortzi talde elkarren kontra lehiatuko dira Eleizalden, bertaraten diren gozagarri. Sarrerekin batutako diru guztia Elorrioko Kainabera elkarteak Nikaraguan duen proiektu bati laguntzera bideratuko dute.

Goizeko 10:00etatik aurrera Real Sociedad-Eibar eta Osasu-

na-Bakaraldo partiduak jokatu dituzte; 10:45ean, Racing de Santander-Mirandes eta Athletic Club Bilbao-Logroñes partiduak. Finala 12:15ean jokatu dute. Sarrerak hiru euro balio du helduentzat; 1 euro 16 urtetik beherakoentzat, eta dohainik da 5 urtetik beherakoentzat.

Elorrioko Udalak eta futbol jokalariek beteren Espainiako federazioak antolatu dute ekimena, eta Elorrioko futbol taldearen laguntza izan du.

Futbol partiduen aurretik Athletic egaz jokatu duten Elorrioko jokalariek ohi bi omenduko dituzte: Jose Mari Igartua eta Jose Mari Zenitagoia.

## Hitzaldia Iturrin

Martxoaren 26an, 18:30ean, *Kirola eta solidaritatea* hitzaldia eskainiko dute Iturrin. Juan Mari Zorriquetak (federazioko presidentea), Manolo Delgado, Andoni Aiarza eta Koikili Lertxundi izango dira hizlariak.

## Euriteen eraginez sortutako kalteak konpontzen

**MALLABIA** Jone Guenetxea Joan zen hileko euriteek kalte ugari eragin zituzten Mallabian. Auzo bideetan sortu ziren kalte handienak. Zubitegi baserrira sartzeko bidean, euriteek bidea hautsi zuten. Azken asteetan lur mugimendu gehiago gertatu dira puntu horretan. Gereako bideko bi lekutan ere pinuak jausi ziren. Munnoki baserrirako auzo bidean eta Berano Txiki auzoko ur-deposituaren ondoan ere bideak kaltetuta geratu ziren. Mila

## Udalak baliabiderik ez duenez, Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatuko dio

Mondragon alkateak dioenez, ortu ludikoetako teiltua ere apurtu zuen haizeak. Konponketa horiek guztiak egiteko udalak aurrekontuetan baliabide nahikorik ez duenez, proiektu bat osatu du udalak, eta Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatuko dio.

## Seme-alabak jaiotzeko edo adoptatzen diru-laguntzak jaso daitezke

### IZURTZA J.D.

Otsaileko udalbatzarrean hainbat arlotako diru-laguntzak jasotzen dituzten ordenantzak onartu zituzten behin-behinean. Horietako bat seme-alabak jaiotzeko edo adoptatzen diru-laguntzak jasotzeko aukera arautzen duen ordenantza da. 500 euroko diru laguntza zehaztu dute umeko.

Diruz lagundu daitekeen gastua haurraren beharriak estaltzera zuzendu behar da, eta gastuak umeei bideratutako artikuluak merkaturatzen diren saltokietan egin ahalko da: farmaziak, haurren arropa denda, etxerako haurrentzako osagarrien denda, eta haurren elikadura eta higienarako dendak. Beste baldintzetako bat da onuradunak Izurtzan erroldatuta egotea 36 hilabetez; diru-laguntza jaso ostean ere, beste 36 hilabetez erroldatuta egon behar dute. Ordenantzaren nondik norako guztiak udal txean jaso daitezke; oraindik udalbatzarrek ez du ordenantza behin betiko onartu.

## 'Herriko tabernen' aurkako epaia gaitzetsi du udalak

Bilduk eta EAJk egin dute gaitzespenaren alde

**ZORNOTZA** J. Derteano Euskal Herriko hainbat *herriko tabernari* zein bertako langileei eragiten dien Auzitegi Nazionalaren sumario bat zigor-epai batez amaitu zen iazko uztailen. Bilduk prozesu osoa zein epaia bera gaitzesten dituen mozioa aurkeztu zuen azken udalbatzarrean, eta Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten.

2013ko azaroan testuinguru orokorrean oinarrituta antzeko mozio bat onartu zuten Bilduk eta EAJk. Oraingo honek "Zornotzako errealitatean, egunerokotasunean, kalean ikusten ditugun pertsonetan" duela testuingurua zehaztu zuen Urko Lopez Bilduko zinegotziak. Zornotzako Belatxikieta elkarteari eta bertako langileei eragin die sumarioak eta epaiak.

Era berean, urtarrilean Ezker Anitza, LAB, ELA, CCOO, ESK, EHNE eta beste eragile batzuek epaia salatze eskaintako prentsaurrekoa gogoratu zuen. UGTko kideak, sindikatuaren izenean beharrean, maila pertsonalean egon ziren.

Mozioak sumarioaren epaia eta exekuzioa gaitzesten ditu, eta "inoiz ere hasi behar ez zuten prozesu politikoetako auzipetu guztien berehalako absoluzioagaz amaitzea" eskatzen du. Era berean, "Zornotzako Belatxikieta zein epaiak eragindako gainerako elkarteek gertu duten itxiera eta konfiskazioa" salatzen ditu. Azkenik, exigitzen du "arerioaren zigor zuzenbidea geratu dadila, bizikidetzaren demokratikoa eta normalkuntza politikorako oinarri sendoak" eraiki ahal izateko.

EAJren izenean David Lataxa alkateak adierazi zuen ez zitzaiola ondo iruditzen dagoneko eztabaidatuta dagoen mozio bat berriro udalbatzarrean eramatea, baina "esentziagaz ados" daudela adierazi zuen: "Datuek diote epaiketa politikoa dela, hamabi urtez luzatzea gehiegi da"; horregatik eman zuen EAJk aldeko botoa.

PSE-EEko Antonio Castellaten ustez, "justiziaren erabakiak onartu egin behar dira beti, aldekoak izan zein ez. Horiek dira joko arauak".

## Josu Muguruzari buruz egindako dokumentala, eguaztenean

### ZORNOTZA J.D.

Datorren eguaztenean, 19:00etan, Josu Muguruzari buruzko *Zohardia* dokumentala eskainiko dute Zelaita zentroko auditoriumean. Zornotza Eraldatuz herri ekimena da emanaldiaren antolatzailea, eta, jakinarazi duenez, Lan-

Eguaztenean, Zelaita zentroan eskainiko dute 'Zohardia' dokumentala, 19:00etatik aurrera

der Irui eta Markel Andia dokumentalaren zuzendariak bertan izango dira, ikus-entzuzkoaren aurkezpena egiteko.

Iaz Bilbon estreinatu zuten dokumentalak Muguruzaren bizitza eta ibilbidea erreparatzen ditu. Josu Muguruz ezker abertzaleko militantea orain 25 urte hil zuten Madril, Espainiako Kongresuan, HBko kide zela, diputatu kargua hartu behar zuen egunaren bezperan.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean  
**PROTESI BERRIAREKIN**  
mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15%

-rainoko DESKONTUAK

WEB GUNeko TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

[www.clinicaekoden.com](http://www.clinicaekoden.com)

\* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako. Banku finantzaketa kudeatzen du.

R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

# Lursaila ez kentzeko eskatu dio Berrizko nekazari batek udalari

Biritxinaga: “40 urtez basoa abandonatuta egon da”

**GARAI** Markel Onaindia Berrizko Aitor Biritxinaga nekazariak behien ustiatzea dauka anaiaz batera, eta 2014ko uztailan lursail bat erosi zuten Berrizen, ustiatzea zabaltzeko asmoz. Baina lursail hori Berrizko eta Garaiko herri lur baten artean dago, eta, orain, Garaiko Udalak erreklamatu gura du, horretarako eskubidea daukalako. Hala ere, Biritxinagari ez zaio bidezkoa iruditzen Garaiko Udalaren erreklamazioa, eta lursaila ez kentzeko eskatu dio. “40 urtez basoa abandonatuta egon da”, esan du Biritxinagak, eta ez du ulertzen, berak erostean, lursaila kentzera etorri izana.

Urrian hasi zen biritxinagatarren buruhaustea. Lursailaren jabeagaz akordiora heldu, eta eskriturekin Berrizko udaltxera joan ziren, salerosketa ofizialtzera. Hasieran erreklamatu egingo zutela esan zieten, baina, alkateagaz eta oposizioagaz batu ostean, atzera egin zuten. Gero, Garaiko Udalaren interesa etorri zen, eta ordezkariekin batu zen Biritxinaga. “Esan ziguten ez zela egingo jarrera txarragaz, eta lasai egoteko”. Baina martxoaren 4an udalak herriko baserriarekin batzarrara egin zuen, gaia aztertzeko. Biritxinaga beste nekazari batzuekin joan zen udaletxera: “Ez zidaten batzarrera sartzen utzi,



Biritxinaga, eskumatik lehena, martxoaren 4an, Garain.

eta ENBA sindikatuko ordezkariari ere ez”.

Biritxinagak azaldu du ustiatzearen bideragarritasunerako behar dutela lursaila. 400 behiri belarra jaten emateko gura dute. Behargin bi ere badituzte, eta,

horregatik, ENBAk lau lanpostu arriskuan ipintzea egotzi dio udalari. Biritxinagak esan du gero eta lur gutxiago dagoela nekazariarentzat, eta haiena dela eskualdean geratzen den ustiatzei bakarrenetakoa.

# Olazarreko lanak amaitu dituzte auzolanean

Korrika egiteko zein oinezarako gunea atondu dute

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Auzolanerako bost biderrez geratuta, aire zabalean korrika egiteko zein ibiltzeko gunea zabal bihurtu dute Olazar futbol zelaiaren ingurua. Martxoaren 7an egin zuten auzolanerako azken deialdia, eta 30 zaldibartar inguru ibili ziren azkenengo lan horiek egiten: zelaiaren inguruko bideko zoruan 120 tona harea zabaldu zuten, korrika egiten dutenentzako zoru egokiagoa atontzeko helburuz.

Horregaz batera, Olazar inguruan hogeitazuhaitz landatu dituzte: Zaldibarko basoetatik ekarritako hogeitazuhaitz, pago eta urki landatu dituzte dorretxearen inguruko lurtean.

Gobernu taldeak adierazi duenez, mahai eta aulkiak ipintzea falta da Olazar inguruko lanak guztiz amaitzeko. Horrela, merendero modura ere erabilgarri izango da inguru hori.

2012. urtean hasi ziren futbol zelaiaren izandakoa herritar boluntarioen lanari esker konpontzen, eta, esaterako, dorretxearen inguruko sasitza garbitzeko hiru auzolan antolatuta dituzte.

Martxoaren 7ko auzolanean, 120 tona harea zabaldu zituzten zelaiaren inguruko bidean



Hainbat herritar auzolanean. Delfin Zubizarreta

# Bildu kritiko, trinket inguruko proiektuagaz

Prensa oharra bidali du Bilduk, gobernuak trinket ingurua berrantolatzeke duen asmoa kritikatu

**ABADIÑO** I.E. Trinket inguruko trafikoa eta aparkalekuak berrantolatzeke udal gobernuak daukan proiektuaren gaineko irakurketa egin du Abadiñoko Bilduk, komunikabideetara bidali duen oharrean. Bilduk azpimarratu duenez, nahiz eta proiektu hori parte-hartze prozesu batetik jaioa den, “Zelaietako berrantolaketa bere erara egiten jarraitzen du gobernuak, eta ez dabil bide onetik”.

Bilduk kritikatu du Abadiñoko Independienteak alderdiko gobernu taldea haien iritzia “eta herritarrena entzun barik” dabilela: “Parte-hartze prozesuan erabakitako hainbat puntu ez dira kontuan hartzen,

eta proposamen horretan oinezkoek ez dute lehentasunik edukiko”. Auzotarrekin lehentasunak markatzearen beharra azpimarratu dute ezker abertzaleko zinegotziek. Bilduk uste du herritarrekin aurreproiektu bat landu, eta, horretan oinarrituta, teknikariak aurkezturiko proposamenetatik partaidetza bidez hautatzea izan beharke litzatekeela jarduteko era.

Koalizioaren ustez, gobernu taldearena “beste irtenbide isolatu bat da”. “Trinket inguruko berrantolaketa pintura erabiliz egitea proposatzen dute, baina, gure ustez, ingurua urbanizatzea izan beharke litzateke lehentasuna, horretarako diru partida bat doitzu”.

# Matienako osasun zentroaren eskriturak egin ditu Osakidetzak

**ABADIÑO** I.E. Osakidetzak bere izenean egin du Matienako osasun zentroaren eskritura, udalagaz horrela adostuta. Eraikina, gutxienez, 30 urtez osasun zentrotzat erabilizteko laga dio udalak Eusko Jaurlaritzari. Jose Luis Navarro alkatearen berbertan, “eskrituretan azaltzen da Eusko

Jaurlaritzak lokalari beste erabilera bat ematen dion ustean berriro itzuliko zaiola udalari”.

Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, Osakidetzak orain arte ez ditu komunitateko gastu proportzionalak ordaindu izan. Udalak hartu ditu gastu guztiak bere gain. Erakunde biek adostu dute komunitate gastuak ez ordaintzeagatik udalagaz pilduta zeukan 23.000 euroko zorra ordaintzea Osakidetzak. Helburu horregaz, 26.000 eurotik gorako inbertsioak egin ditu 2013tik hona Osakidetzak Matienako osasun zentroan.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Elizalderako bidea zabalduko dute

**ELORRIO** > Udalak Elizaldeko kirol instalazioetara doan bidea zabalduko du. Sinatutako hirigintza hitzarmenari esker, bidea zabaltzeko behar diren lurak erabiliko dituzte horretarako. Sarbide berri honi esker, aire zabaleko igerilekuek eta Elizaldeko futbol zelaiak sartzeko eta irteteko bide zabalagoa izango dute.

### ‘Euskaraz bizi’ afaria, Plateruenean

**DURANGO** > Martxoaren 27rako *Euskaraz bizi* afaria antolatu du Durangoko EHEk. Afaria 21:30ean hasiko da, eta, ondoren, abesti herrikoiak abestuko dituzte Anttonegatz eta Nagoregatz. Azkenik, Bi Balak kontzertua eskainiko du. Plateruenean eta Intxaurren daude salgai txartelak, 12 euroan.

### Kontzertua Andra Maria basilikan

**DURANGO** > Igandean, martxoak 22, Tabira Musika Bandak kontzertua emango du Urribarriko Andra Maria basilikan, 19:00etan. *Jerusalén, El Fallero, La canción del olvido, In a Monastery garden* eta *Shirim* abestiak izango dira musika bandak joko dituenetakozatuz.

## Iritzia



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,  
48215 - Iurreta  
• izen-abizenak • telefonoa  
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

### -DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-


Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

**Jose Angel Uberuaga, 'Ube' | Artista | Gernika, 1961**

## “Jendea artelan eder eta politikoki zuzenera dago ohituta: objektu-arte esaten zaio horri”

Apirilaren 7ra arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan egongo da 'Ube' artistaren 'The black Dahlia' ikusgai



**> ARTEA** Itsaso Esteban  
Udatik hona ibili zara erakusketa hau prestatzen?

Pasa den urteko urrirako neukan erakusketa hau Durangon ipintzeko aurreikuspena, baina atzeratu egin genuen azkenean. Emakumeen inguruko lana izanik, martxoa aukeratu nuen, azkenean, erakusketa emakumeen egunagaz lotzeko.

**Udan, eliza baten barruan egin zenituen argazki batzuek zalaparta eragin zuten. Zure lan prozesuetan eraginik izan du polemika horrek?**

Bai, noski. Zalaparta haren ostean, besteak beste, argazki haiek nazioarteko hainbat lekutan erakusteko aukera izan dut. Horrek guztiak ekarri du Durangoko erakusketa atzeratzea.

**Jaso duzu Durangoko erakusketa ikusi dutenen iritzirik?**

Bai; sare sozialen bitartez, telefonoz eta erakusketan bertan ere esan dit jendeak erakusketak zer sentazio eragin dion. Erakusketaren filosofia oso gustuko dutela esan didate askok, ulertzen nautela. Oso pozik nago, orokorrean, erantzunagaz.

**Erljioek emakumea zelatan tratatu izan duten islatzen dute erakusketako obretako erreferentzia askok. Zergatik?**

Matxismoa ez da gaurko kontu bat, baina azkenaldian ikusten ditugun irudiak oso bortitzak

dira, eta beharrezko izan dut gai horri buruz zerbait egitea. Emakumearekiko jazarpenaz jarduteko, erlijio guztiei egiten diet erreferentzia; izan ere, gurean ere burka ikustezin asko dago. Erakusketan, Hamar Aginduei erreferentzia egiten diet, esaterako. Horien bitartez erakutsi nahi dudana da gizonezkoek gizartea zelatan kontrolatzen duten, besteoi eurek ere betetzen ez dituzten aginduak emanez.

**Zer mezu zabaldu gura duzu erakusketaren bitartez?**

Gizartean gertatzen diren gauzak hain dira larriak, ezen aldatzeko esperantza bakarra autokritikatik abiatzea den. Denok gara errealitate latz honen arduradun. Horregatik agertzen naiz argazkietan. Ni ere gizonezkoa naiz, ni ere hainbat ikuspuntutatik erruduna naiz. Gogoetara bultzatu gura dut jendea. Emakumeen egoera dramatiko da.

**Zaila izaten da horrelako mezua daukan obra erakustea?**

Oso zaila izaten da. Zenbat aldiz edukitzen dugu horrelako erakusketa bat ikusteko aukera? Galeristek, komisarioek eta politikoez hartzen dituzte arteari loturiko erabakiak, eta eurek esaten digute zein artelan den ona eta zein txarra. Hori bai, politikoki zuzena den artea ematen dute ontzat. Bihar-etzi komisario boteretsu batek "Ube fenomeno

bat da" esango balu, gauzak aldatuko lirake; baina ez denez gertatuko, guk lanean jarraituko dugu. Beste batzuen menpe gaudu: zer pentsatu, zelan jantzi... Dena haien arabera egiten dugu.

**Autokritikatik abiatuta, bes-teen gogoeta bultzatzeko probokazioa baliatzen duzu?**

Probokazioa ez da helburua. Kontua da ni aspaldi nabilela gai hauek nire artelanetan lantzen. Nire istorioekin asko arriskatu izan dut beti; izan ere, bakeari buruz jardun gura baduzu, esaterako, gerraz aritzea beharrezkoa dela uste dut. Gerra nork bultzatzen duen ere oso presente edukitzea beharrezkoa dela uste dut.

**Panamako arte bienalerako hautatua izan zinen 2013. urtean, eta estatuan zein nazioartean ere hainbat aldiz erakutsi izan duzu zure lana.**

Bai, horrela da. Jendea artelan eder eta politikoki zuzenera dago ohituta: objektu-arte esaten zaio horri. Eta, egia esan, leku askotan harritu dira nire lanagaz.

**Erradikalenak ziren lanak erakusketa honetatik kanpo utzi dituzula esan zenuen. Zerk bultzatu zaitu horretara?**

Askoz gordinagoak ziren artelanetarik asko. Elizako pasadizoaren ostean, zalaparta handia sortu zen: fanatikoek hila egingo nindutela ere esan zuten. Mehatxua hor dago beti, baina ezin gara beldurtuta bizi. Ni ez naiz inor baino ausartagoa, baina barruan daukadana esateko beharra dut.

## Matxismoaren eta hipokrisiaren inguruko gogoeta autokritikoa

Uberuaga: "Gizartean gertatzen dena artearen bitartez aztertzen dut"



Joan zen barikuan, Uberuagak prentsaurrekoan eman zituen erakusketaren gaineko azalpenak.

Emakumeagaz eta matxismoagaz loturiko gaiei buruzko obra esplizitu bat da Jose Angel Uberuagak *The black Dahlia* honetan erakusten duena: emakumeen kontrako indarkeria matxistari, sexualitateari eta erlijioen paperari buruz dihardu, ironia baliatuta. Artista bera rap kantaria den aita santu jantzita agertzen du, esaterako, argazkietako batek: Francisco aita santuaren diskurtso berri-tzaileei erreferentzia egiteko,

"Kronista baten lana egiten dut", azaldu du artistak; "gizartean gertatzen dena artearen bitartez aztertzen dut".

Erljioen edo beste inoren kontra aritzerik ez duela azpimarratu du artistak: "Ez dut inor probokatu nahi". Izan ere, autokritika du erakusketak ardatz. "Guztiok garenez gizarte honen parte, guztiok gara kritikaren jomuga".

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Durangaldeko publikoaren aurrean eskainiko dute *Barbantxo* antzezlan, domekan, Logela Multimedia taldeko elorriarrek. Durangoko San Agustin kultur-gunean eskainiko dute antzezlan, martxoaren 22an, 18:00etan. Protagonistatzen Barbantxo duen ipuin ezaguna modu berri-tzailean dakarte Logela Multimediakoek. Hiru aktoreen lana ez ezik, 3Dko irudiak eta zuzeneko musika ere uztartzen dituzte ikuskizunean.

Publikoa antzokira erakartzeko modu berezia darabilte taldekideek proiektu honetan. Liburu bat kaleratu dute, 3 eta 8 urte arteko umeentzat, "emaldia eskaini orduko, ikusleek istorioa ezagutu dezaten". Ipuin tradizionala 3Dko irudi eta betaurrekoekin lagunduta dator oraingoan. "Elementu horiek berehalako efektua dute umeengan: ikusmina pizten diete, eta antzokira etortzen dira", dio Ander Garaizabal taldekideak.

Diziplina askotariko sorkuntza da Logela Multimediaren *Barbantxo*; adibidez, bideoa, *mappinga*, zuzeneko musika eta antzerkia darabiltza. "Sorkuntza prozesua uste genuena baino konplikatuagoa izan da azkenean, baina oso gustura gaude emaitzagaz", dio Garaizabalek.

## Barbantxoren istorio ezaguna, Logela Multimediaren bertsioan

Durangon eskainiko du Logela Multimedia, domekan, 'Barbantxo' obra



Hiru aktoreen lana, 3Dko irudiak eta zuzeneko musika uztartzen dituzte 'Barbantxo' ikuskizunean.

Donostiako iazko dFeria jaialdian aurkeztu zuten lana, eta Elorrioren egin zuten jendareko entsegua. Taldekidearen berbetan, harrera ona eduki zuten arren, udan berriz heldu zioten sorkuntza prozesuari, hobekuntzak egiteko. Urritik dabilta obra eskaintzen.

*Anaki* izeneko ikuskizunaren ostean, Logela Multimedia

taldeak haurrentzat sortu duen bigarren ikuskizuna da *Barbantxo*. Umeentzako ikuskizuna izan arren, helduei zuzendutako hainbat keinu ere egiten dituzte-la azaldu du Garaizabalek: "Logela Multimediaren sinadura darama ikuskizunak", arte eszenikoak gogoko dituzten helduen gozamenerako aukera ere izan daiteke San Agustingoa.



### GEURE DURANGALDEA

**AINHOA URIEN**

Ikaslea



### Korrika

Urepeleko artzain hura balego, jakingo luke ardiek nahiago dutela lasai ibili, bide bazterretako belarrik gozoenak arin-arin jaten, behin larrera heltzean lasai asko hausnarrean egoteko egindako bideko zapoak gozatuz. Itaka baino garrantzitsuagoa da irla desiraturako bidaia.

Atzo hasi zen Korrika, eta tai gabe eskurik esku lekukoa hamaika hanken iparrorratza izango da. Baina zer darabilgu zintzarria bustitzeko bada? Jakina da ez duela balio hamar egunetik ordu erdian, norbere herritik pasatzekotan beti ere, korrika pixka bat egiteak, oiher batzuk botatzeak eta euskaldun garelara eta hala ikus gaitzatek indar guztiakin aldarrikatzeak. Ez du balio ez, gainerako minutu guztietan euskaraz egin, bizi eta gozatzeko gai ez bagara. Baina harro sentituko gara gu, beti harro, geu garelako Europa zaharreko herri are zaharragoa, eta gure hizkuntza izan delako mespretxu eta irain ororen diana; biktimismo horretan erori eta halako odol euskaldun-abertzale batek blaitzen gaitu. Gola sartu ondorengo euforia efimeroa.

Ordu erdia korrika pasata, izerdia atera izanaren aitzakia-rekin, zerbeztaxo bat hartzera joango gara kuadrillan tabernara, ahal bada umeak hartuta, eta umeari merienda euskaraz ematen diogun bitartean azalduko diogu gure kuadrillakideari Euriborra igo dela, lankideren bat larrutuko dugula, eta Euskal Herria askatuko dugula. Gaztele-raz, frantsesez...

Hunkigarria izaten da Korrika, hasiera zein amaiera festa, goizaldeko ordu txikietan Nafarroako zein Arabako lautadetan lekukoa gelditu gabe, sokari etengabe tiraka. Hamar egun korrika eginda, gainerako egunetan ortozik oinez, lasaitasunez, gozatuz, behatz puntak euskara tantoz josita ibiltzea da bidea, gero lasterka egiten jarraitzeko.

## Kurutziaga akademiako ikasleen erakusketa

Durangoko Ezkurdin ipiniko dituzte lanak ikusgai

### > MARGOGINTZA

Durangoko Ezkurdin udal erakusketa aretoan ipiniko dituzte Kurutziaga margogintza akademiako ikasleen lanak ikusgai. Martxoaren 20tik 29ra egongo da erakusketa zabalik: aste-gunetan 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

5 eta 20 urte arteko ikasleen margolanak dira erakusketarako bilduko dituztenak. Akua-relagaz eta tenperagaz egindakoak, esaterako.

Lehenago ere erakusketak antolatu izan dituzte Kurutziaga akademiako arduradunek, bertako ikasleen lanak erakusteko. Hauxe da, baina, ikasleen lana Ezkurdin udal erakusketa areto honetan erakutsiko duten lehen aldian.

Akademiako 5 eta 20 urte bitarteko ikasleen lanak dira erakusketarako bilduko dituztenak

## Durangaldeko seikotea BBK sariketarik kanpo

Durangoko institutuan jokatu zuten, astelehenean, bertsolari gazteen sariketaren azken kanporaketa

### > BERTSOLARITZA

Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuan jokatu zuten, astelehenean, Bertsolari Gazteen BBK Sariketako hiru-garren eta azken kanporaketa. Busturialdeko taldeak irabazi zuten saioa, eta, ondorioz, final-lurrekoetan parte hartzeko txartela lortu zuen.

Iruri Altzerreka, Bittor Altube eta Txaber Altubek osatu dute 18 urtetik beherako Durangaldeko taldea, eta 170 puntu eta erdi batu zituzten Durangoko

saioan. Sei puntu gehiago lortu zituen Busturialdeak. Igor Galarza, Ander Gerrikaetxebarria eta Aitor Bizkarra izan dira, bestalde, 19 urtetik 24ra-koen artean Durangaldearen ordezkari: Busturialdekoek baino zazpi puntu gutxiago jaso zituzten.

Martxoaren 17an eta 24an, Markina-Xemeinen eta Sopelan jokatu dituzten final-lurrekoetan erabakiko da zein bi taldek abestuko duten martxoaren 26an, Bilboko Kafe Antzokian, jokatu den finalean.

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Barbantxo**  
Logela multimedia

Martxoaren 22an  
18:00etan

familiantzako antzerkia

San Agustin KULTUR GUNEA

PLATERUENA

**Durangoko Kafe Antzokia** www.plateruena.net  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

MARTXOAK 20  
22:30ean 8€ / 10€  
PETTI + MURSEGO  
MUSIKA KONZERTUA

MARTXOAK 21  
22:30ean 8€ / 10€  
SHINOVA + MOCKER'S  
MUSIKA KONZERTUA

MARTXOAK 22  
18:00ean DOAN  
AIKO ERROMERIA  
ERROMERIA



# Clownarekiko pasioz beteriko lau egun, Aste Santuan, Durangon

Apirilaren 2tik 5era luzatuko da Topaklown bilgunea; asteon aurkeztu dute

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Apirilaren 2tik 5erako egunak aprobetxatuta antolatu dute, hirugarren urtez, Topaklown. Clowna maite dutenen zein clownarekiko jakin-mina duten guztien topagune izan gura du hitzorduak. Martitzenean, San Agustin kulturgunean aurkeztu zuten aurtengo edizioak dakarren ikastaro eta ikuskizun egitarau oparoa.

Jon Kepa Garro Astarloa kultur gintza erakunde publikoko ordezkariak agerraldi horretan azpimarratu zuenez, “hiru urtean egonkortu den proiektua da Topaklown”. Datuek erakusten dute hori; 2013ko lehenengo edizioan 70 parte-hartzaile inguru izan zituzten ikastaroetan. Aurtun, 150 espero dituzte, eta

itxaron zerranda luzea dago ikastaro batzuetarako.

Gorka Ganso antolatzaile eta aktorearen berbetan, “eskaria itzela izan da, eta oso pozik gaude”. Gainera, hitzordu honen harira “sortzen dabiltzan sinergiak” goraiatu zituen Gansok: “Balio batzuk partekatzen dituen jendearren bilgunea da Topaklown”. Horren adibide, clownaren inguruko liburuen erakusketa berezia ipiniko dute egun horietan Arteka liburu-dendan, eta hainbat tabernarik ere prezio bereziak eskainiko dizkiete ikastaroetako ikasleei.

Bi arlo izaten ditu San Agustinek eta kulturgunee horretako konpainia egoiliarra den Ganso & Cia taldeak antolatutako Topaklown bilgunea; batetik,

clownaren kode teatralean dabiltzan artistak eta pedagogoak gonbidatzen dituzte ikastaroak eskaintzera. Bestetik, jaialdiak irauten duen egunetan, clown ikuskizunen emanaldiak izaten dira iluntze eta gauetan.

*Bufón sagrado* ikastaroa eskainiko du, esaterako, Andres del Bosque txiletarrak; *Experimentación del espíritu payaso* ikastaroa eskaintzera etorriko dira, Christophe Thellier eta Fanny Giraud frantziarrak; eta *De la máscara neutra al clown* eskainiko du Virginia Imazek. Aurtun, gainera, euskarazko ikastaro bat eskainiko dute, lehenengoz. Pablo Ibarluzea eta Eneritz Artetxe izango dira *Klowna eza-gutuz* hastapen ikastaroaren ardura izango dutenak.

## Zazpi ikuskizun

Zazpi clown ikuskizun izango dira Aste Santuko lau egunetan, Durangon. Doakoak izango dira El Gran Dimitri, Aérea Teatro eta Decopivolta Teatre taldeen emanaldiak. Apirilaren 2an, 18:00etan, eta apirilaren 3an eta 4an, 20:00etan, izango dira, hurrenez hurren.

Bonu berezia eskuratuz gero, bestalde, 16 euroan ikusi ahalko dira Industrial Teatraren *De paso*, Cia Carlo-Mo&Mr. Di taldearen *Teatro de lo infame* eta *III. Topaklown Kabareta*.

### APIRILAREN 2an

18:00 'CircusZ RupT', musika eskolako plazan. Doan.

21:00 'De paso', San Agustin kulturgunea. 8 euro.

### APIRILAREN 3an

20:00 'Bellotas', San Agustin kulturgunean. Doan.

22:00 'Teatro de lo infame', San Agustin kulturgunean. 8 euro.

### APIRILAREN 4an

20:00 'Doble cita', San Agustin kulturgunean. Doan.

22:00 III. Topaklown Kabareta, San Agustin. 8 euro.

### APIRILAREN 5ean

20:00 Ikastaroen erakustaldia, San Agustin kulturgunean.

Doan.

\*Topa-bonuagaz, ikuskizun guztiak 16 euroren truke



Antolatzaileak eta parte-hartzaileak, eta Asier Bastidak egindako kartela.

# Artearen eta gerraren erlazioaz, hiru berbaldi

Artea Ezaupide zikloaren XII. edizioa, Durangon

## > BERBALDIAK

Artea Ezaupide zikloaren XII. edizioaren barruan hiru berbaldi antolatu dituzte *Artea eta gerra* gaiaren inguruan. Martxorako antolatu dituzte zikloaren barruko hitzaldieta-ko bi –lehenengoa hilaren 12an izan zen–, eta apirilean egingo dute hirugarrena. Etxezarreta jauregian, 19:00etan, izango dira hitzorduak.

*Picassoren Gernika. Estiloaren eta portaeraren arteko artistaren zeregin bitala* izenburukoa da zikloaren barruko hurrengo berbaldia, eta Xabier Laka eskultore eta irakasleak eskainiko du, martxoaren 26an.

Javier Baldak itxiko du Artea Ezaupide zikloaren aurtengo eskaintza. *Memoriales. La guerra por otros medios* berbaldia eskainiko du Baldak.

Artearen edertasunaren bilaketa eta gerraren suntsipena antonimoak dira, baina historian lotura izan duten errealtateak ere badirela erakutsiko dute Artea Ezaupide zikloaren aurtengo edizioan.

Picassoren 'Gernika' hartuko du ahotan Xabier Laka eskultore eta irakasleak, hilaren 26an

Aitor Aurrekoetxea filosofia irakasle eta arte kritikari durangarrak eskaini zuen lehenengo berbaldia. *El expolio de arte nazi* izenburua izan zuen saioak, eta naziek artearekiko zuten obsesioaz hitz egin zuen.

# 'Winter greets you' diskoko kantak joko ditu The Great Barrier seikoteak, Berrizen

Berrizko Kultur Etxean joko du, bihar, 20:00etan hasita, Uribe Kostako taldeak

## > MUSIKA

Disko berriko kantak eskainiko ditu Uribe Kostako The Great Barrier taldeak, Berrizen. Berrizko Kultur Etxean joko du seikoteak, martxoaren 21ean, 20:00etatik aurrera. Rock eta

folk doinu landuak izango dira Kultur Etxean entzungai.

Urte hasieran kaleratu zuen diskoa da taldeak Berrizen aurkeztuko duena. *Winter greets you* izenburua du diskoak, eta bederatzi kanta biltzen ditu.

2013. urtean Bilbo Hiria musika lehiaketa irabazi zuen Uribe Kostako talde honek, pop-rock atalean. Belle & Sebastian eta Calexico taldeen eragina jasotutela aipatzen dute taldeko musikariek.



Rock eta folk doinu landuetan oinarrituriko kantak dira The Great Barrier taldearenak.

# 200dik gora kirolarik parte hartuko dute Zornotzako Duatloiaren seigarren edizioan

Extrem Zornotza taldeak antolatzen duen kirol proban 60 bat lagun ibiliko dira boluntario lanetan



Zornotzako herrigunetik ibiliko dira kirolariak domekan. Extrem Zornotza

**> DUATLOIA** Markel Onaindia Guztia prest dago Zornotzan, domekan duatloiaren seigarren edizioa hartzeko. Extrem Zornotza taldekoek antolatzen dute kirol proba, eta aurten ere 60 bat lagun ibiliko dira egunean bertan boluntario lanetan, guztia

ondo atera dadin. 200dik gora kirolarik parte hartuko dute 59 kilometroko lasterketan.

Iaz aldaketa egin zuten ibilbidean, saihesbideko obrak zirela-eta. Autzagane beharrean, Muniketa igotzea erabaki zuten, eta, Iurgi Etxeandia antolatzaileak

leak azaldu duenez, aurten ere ibilbide berbera egingo dute: "Jendeari ibilbidea gustatu zitzaion, eta horrela mantenduko dugu". Beraz, Zornotzatik Durangorako norabidea hartu, eta Iurretako Arriandi auzoan Muniketa igotzen hasiko dira.

Urrutxua, Muxika eta berriro Muniketatik buelta eginda osatuko dituzte 59 kilometroak. Lehenengo hamarrak korrika osatuko dituzte, gero bizikleta gainean ibiliko dira 44 kilometroan zehar, eta azkeneko bost kilometroetan, ostera, berriro ere arineketa egingo dute.

## Faboritoen lehia

Iaz emakumeen mailan irabazi zuen Lourdes Oiartzabal oñatiarra berriro etorriko da Zornotzara domekan, eta bera izango da lasterketa irabazteko faboritoetako bat. Gizonen artean, Beñat Arnaiz eta Ibai Etxeandia egongo dira faboritoen artean. Arnaiz aurrean ibili da hainbat probatan, eta Kantabrian lasterketa bat irabazi berri du. Iurgi Etxeandia antolatzaileak esan du bere anaia Ibai maila onean dagoela, eta Zornotzan aurrean ibiltzea espero du. Iurgik berak, ostera, ez du parte hartuko. Duela urte bi Akilesen tendoia apurtu zuen, eta, ebakuntza bat egin arren, ezin izan du maila onera bueltatu. Duatloia antolatzen egingo du bere ekarpena.

## Pertikan brontzea jantzi du Miren de Regilek

Espainiako Txapelketan hamaikagarren domina du

### > ATLETISMOA

Miren de Regilek brontzeko domina irabazi du pertika jauzian, pista estaliko Espainiako Txapelketan. 17 urteko galdakoztarra Durangoko Ibaizabal ikastolako ikaslea da.

3.60 metroko jauziagaz lortu zuen domina. Urrea irabazteko helburua zuen, baina bere marka onenetik (3.85) urrun samar

geratu zen: "Pena apur bat geratu zitzaidan, baina ondo pasatu dut, eta hori ere baloratu gura dut". Azken bost urteetan de Regilek hamaika domina -tartean hiru urrezko- irabazi ditu, pertika jauzian zein salto hirukoitzean. Azken espezialitate hori utzita du, baina "berri batzuk probatzeko gogoia dut", adierazi du: 60 metro korrika, esaterako.



Miren de Regil eskuman, podiuko hirugarren tokian.

## Gandiaga-Bilbao Bizkaiko txapeladun

Lehen mailako finala irabazi dute trinketean



Lier Gandiaga eta Joseba Bilbao Lehen Mailako txapelagaz.

### > TRINKETA

Abadiñoko Tornosolo taldeko Lier Gandiaga lekeitiarrak eta Joseba Bilbao lemoarrak Bizkaiko Trinket Txapelketa irabazi dute Lehen Mailan. Gaur zortzi Abadiñoko trinkeketan jokatuak finalean Kurene taldeko Gordon eta Ugarte ziren faborito, baina Tornosoloko bikoteak bikain jokatu eta ezuste-

koa eman zuen. Partidu luze eta gogorra jokatu zuten, (40-36) eta Joseba Bilbaok maila bikaina eskaini zuen.

Bilbon jokatuak finaletan Mañariko taldeko Ander Olalde mallabitarrak eta Oier Azkarraga mañariarrak Hirugarren Mailako finala irabazi zuten, Orma Bi taldeko Uriarte eta Eskalza 40-31 menderatuta.

### > AGENDA

#### > DUATLOIA

##### IZEN-EMATEA

**Durangoko duatloia martxoaren 28an, MugarraTTk antolatuta.**

· Izen-ematea martxoaren 26an amaitzen da: [www.triatloi.org](http://www.triatloi.org)

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Durangoko Kulturala - Arenas**

· Domekan, 11:45ean, Tabiran.

##### OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Deusto**

· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaietan.

**Elorrio - Abanto**

· Domekan, 16:30ean, Eleizalden.

##### MAILA GORENA

**Abadiño - Larramendi**

· Domekan, 11:00etan, Berrizburun.

**Zaldia - Trapagan**

· Domekan, 11:30ean, Solobarrian.

##### LEHENENGO ERREGIONALA

**Berriz - Otxarkoaga**

· Domekan, 18:00etan, Berrizburun.

#### > ARETO FUTBOLA

##### EUSKAL LIGA

**Sapuberri - Presion Break**

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

##### LEHENENGO ERREGIONALA

**Abadiñoko Gaztetxe - Aurrera Beti**

· Domekan, 11:00etan, Matienan.

**Mallabia B - Mazusberri**

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarren.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Elorriko Buskantza C - Mundakako Katilotxu**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroldegian.

**Gu Lagunak - Erandio B**

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

**Mendibeltz - Zurbaran**

· Zapatuan, 17:45ean, Landakon.

#### > SASKIBALOIA

##### LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako Baqué - Bera Bera**

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

##### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

**Tabirako Baqué - Sopela**

· Zapatuan, 16:45ean, Landakon.

##### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

**Julza Zaldia - Zornotza**

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

#### > PILOTA

##### SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA

- Esain - Lizundi

- Exposito - Basabe

- Uriona - Jauregi

· Barikuan, 20:00etan, Matienan.

- Matxain - Ruiz

- Bellido - Escudero

· Domekan, 17:00etan, Matienan

# DRTk igoera fasea ziurtatu du Uribealdea mendean hartu ostean

Partiduaren amaieran jokalariek eta zaleek lorpena ospatu zuten



Jokalarien konpromisioa eta lanerako ahalmena dira arrakastaren gakoak, Ines Etxegibelen ustez. Jon Iglesias

**> ERRUGBIA** Joseba Derteano Durango Rugby Taldeak Ohorezko Mailarako igoera fasea jokatu du. Ines Etxegibelen gizonak 20-10 irabazi zioten Uribealdeari zapatuan, Arripausuetan jokatuako partiduan. Batutako bost puntu horiekin matematikoki ziurtatu zuten sailkapena.

“Azkenean lortu dugu”, dio Etxegibelek. Esku-eskuan zuten, baina lotu beharra zegoen.

Taldearen ibilbideak eta denboraldi guztian erakutsitako sendotasunak konfiantza hedatzen zuen zaleen artera ere, baina, badaezpada, patxadaz hartu gura zuten. Baldintza bat bete behar zen ospakizunari atea irekitzeko: matematikak alde izatea. Eta horretarako lehenengo aukera baliatu zuten; zaleen aurrean, gainera. Uribealdearen kontrako partidua amaitu ostean, barruan gordetako

sentimendu guztiak azalaretu ziren Arripausuetan: “Oso pozik gaude, eta ospakizuna itzela izan zen, emozio guztiak atera genituen bertan”.

Uribealdearen kontrako partidua ez zen erraza izan. “Apu urduri irten ginen”, onartu du Etxegibelek. Gainera, Uribealdea ez zen nolana hiko arerioa: “Gu baino esperientzia eta errugbi gehiago daramate bertako jokalariek euren gor-

putzetan”. Baina partiduak aurrera egin ahala, DRTk gora egin zuen, eta 80. minutuan lortu zuen bosgarren puntua eman zion entsegua. Lau entsegu lortu zituen Iker Herceren, Sabin Goitiren, Antxon Iriondoren eta Aimar Urienen bidez.

## Ez dira konformatzen

Zapatuan igoera fasea poltsikoratu ostean, DRTko jokalariek eta zaleak zain geratu ziren: hurrengo egunean Zarautzek egingen zuenaren zain, artean liga irabazteko aukerak zituztelako. Baina gipuzkoarrek ez zuten hutsik egin, eta liga garaipena eskuratu zuten.

Beraz, liga amaitzeko gertzen zaizkion partidu biek DRTk ez du helburu zehatzik: “errugbiarekiko errespetua mantendu, eta orain arteko lanagaz jarraitzea da gure egitekoa”. Orain ezin dira erlaxatu, eta “gure dinamika onari eusten saiatu behar dugu”. Domeka honetan, Burgosen jokatu dute bere sasoiaren elurraren ondorioz atzeratutako partidua.

Igoera fasean Ohorezko B Mailako hiru multzoetako aurreneko bi sailkatuak egongo dira. Sei talderik onenak. Talde indartsuak dira, batzuk DRT baino eginagoak eta hobeak. Zarautz bera, urrunago joan beharrik gabe. Baina ilusioa eta konpromisioa dagoen tokian...

## ADITUAREN TXOKOA



### Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

### Bat ala bi?

Bizkaitar pilotazalea Urantzura begira dago jada. Bertan ez da bizkaitarrik izango, Aretxabaletak ez baitu jokatu, baina finalerdietarako bere sailkapena jokoan izango da bertan. Berasaluzeko II.ak, azken urteetan izan den pilotari bizkaitar miretsienak, eskaini zion bere laguntza markinarri, zapatuan irabazita, eta bigarren bizkaitarra finalerditan izatea edo ez Irunen erabakiko da.

Oinatz Bengoetxeak, beste behin, Untoria izango du kide atzeko koadroetan, eta Andonik behatzak gurutzatuta jarraituko du lehia. Zapatuan jakingo dugu bizkaitar batek edo bik jarraituko duten binakako txapelerantzako bidaiari, oraindik luzea, finalerdia ere ligaxkan jokatu baitira.

Txapelketa oso luzea, luzezia gertatzen ari da. Pilotarien hutsegiteak asko izan dira, eta ez da kasualitatea jada finalerdian diren bikoteak osoenak izatea. Ezkurdia-Zabaleta eta Artola-Albisu bikoteek bere horretan jokatu dituzte partidu guztiak. Pablok partidu bakarra utzi du jokatzeke, baina beste bikote guztietan dantza ikaragarria izan da. Eta azken bikotea zein ote? Bengoetxea-Untoria (Aretxabaleta) / Irujo (Altuna)-Barriola.

Nahiko genuke bigarren bizkaitarra finalerdietan izatea, baina ez da samurra izango. Baina hori horrela suertatuko balitz, ligaxka oso berezia eta ezberdina izango litzateke; nork pentsatuko zukeen orain pare bat hilabete finalerdietako ligaxkan azken hamarkadako bi izarren falta izango zenik? Txapelen bidean Aimar eta Irujo falta!

## Xakean Abadiñok ezin izan dio Ohorezko Ligari eutsi

Bigarren itzulian kaskar ibili ostean, Euskadiko Lehen Mailara jaitsi da Abadiño Xake Taldea

### > XAKEA

Ligaren lehenengo erdian igoera postuengatik borrokan zebilen Abadiñok maila galdu du azkenean. Horrelako gorabeherak ditu xakeak; taldeen artean parekotasun handia dago, eta jardunaldi batetik bestera eguna gau bihurtu daiteke, eta horixe gertatu zaio Abadiñori

Denboraldiaren bigarren erdi kaskarra osatu du Abadiñok. Azken jardunaldian, igotzeko borrokan zebilen Gros talde ahaltsuaren kontra puntuak batu behar zituen, eta, zoritxarrez, logika nagusitu zen. Grosek 4-0 menderatu zuen Abadiño.

**Zornotza igoeraren atarian** Datorren denboraldian Abadiño eta Zornotzaren arteko derbiak izango dira Lehen Mailan. Zornotza igoeraren atarian geratu da beste behin. Bigarren urtez segidan puntu erdia falta izan zaio Ohorezko Mailara salto egiteko. Baina alde onari begiratu beharra dago; hamar taldetik lau jaitsi diren multzoan

mailari eutsi izana balorazio positiboa egiteko modukoa da. Orain, apirilaren 16tik 22ra Zelaieta zentroan jokatu den Euskadiko Buruz Buruko Xake Txapelketa antolatzeari ekingo diote.

### Zaldi Baltza, mantendu

Elorrioko Zaldi Baltzak helburuak bete ditu, eta talde biek mailari eutsi diote. Talde nagusiak Bizkaiko Maila Gorenean jarraituko du beste urtebetez. Etxeko lanak eginda heldu zen azken jardunaldia, eta, lasaitasun horregaz, hortzak erakutsi zizkion Barakaldo liderrari: 2-2.

Orain apirilaren 26an Elorrioko jokatu den eskolarteko txapelketaren antolaketan zentratuko dira.

### Larrasoloeta jaitsi egin da

Durangoko Larrasoloeta A Bizkaiko Lehenengo Mailatik Bigarren Mailara jaitsi da. Denboraldi guztian behealdean ibili ostean, azken txanpan ezin izan du egoera zuzendu.

## Sapuberrik hiru puntuak behar ditu derbian

Presion Break taldea izango du arerio zapatuan

### > ARETO FUTBOLA

Bihar Euskal Ligako derbia jokatu dute Durangoko Sapuberri eta Berrizko Presion Break taldeek, 16:00etan, Landako kiroldegian. Puntu beharrean dauden arteko partidua izango da; durangarrek zutolik irteteko behar dituzte hiru puntuak, eta berriztarrek goiko postuen lorratza ez galtzeko.

Orain lau urte sortu zen Sapuberri, eta harrezkero hiru igoera lortu ditu Euskal Ligara

heldu arte. Jokalariek bazekiten aurtun gaitz izango zutena martxa horri eustea, eta denborak arrazoi eman die. Liga amaitzeko sei jardunaldiren faltan, porrot batek mailari eustea zail jarriko lieke. Derbian Presion Break izango da faborito; puntu beharrean dago hori ere, gora begira jarraitu gura badu.

Maila berean, Elorriko Buskantza B azken-aurreko dago, eta, Sapuberriren antzera, puntuak behar ditu mailari eusteko.

## Carballok zilarra irabazi du, eta Diezek brontzea



Eneko Diez eta Eneko Carballo, asteburuko proban.

### > JUDO

Durangoko judo taldetik Euskadiko Txapelketara sailkatu diren sei kadeteek Hernaniko proba batean parte hartu zuten, joan zen asteburuan. Domina bi irabazi zituzten, nork bere pisuan: Eneko Carballok zilarra eta Eneko Diezek brontzea. Carballo Frantziako nazioarteko proba batean parte hartuko du laster Euskadiko selekzioagaz.

Bestalde, Bizkaiko Ligako proba batean Durangoko judo-kek urrezko lau domina eta zilarrezko bi irabazi zituzten.



# OSASUN GIDA



## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



## PEDAGOGIA

**UGAITZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



## PODOLOGIA

**JON GERRIKAETXEBARRIA**  
PODOLOGO

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**  
PODOLOGOIA

**AINHOA ELORZA**  
PODOLOGOIA

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoportmetriazentroa.com

RPS: 162/13



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



**Aiara Gómez Cadiñanos** | Hegoafrikan boluntario | Elorrio, 1991



Ainara Gómez argazkiaren eskuinaldean.

## “Nire bizitzako garai bat besteei laguntzen ematea erabaki nuen”

Aiara Gómez elorriarrak lau hilabete daramatza Hegoafrikan, Ikhetheko zentroko hezitzaile

**> BERBAZ** *Jone Guenetxea*  
Aiara Gómez ilusioz beteta dabil lanean, Hegoafrikan. Irakasle lanetan zentro batera laguntzera joan zenean, bertan ikusitako bidegabekeriaren kontra borrokatu zen. Orain, bera da proiektuaren arduradun, eta ahalegin handia egiten dabil proiektuak aurrera egin dezan.

**Zelan heldu zinen Hegoafrikara?**

Nire bizitzako ametsa betidanik izan da boluntario izatea Afrikako lekuren batean; ikasketak amaitu, eta hurrengo helburua hori izan dut aspalditik. Hezkuntza arloan gehiago hezi nahi nuen neure burua, eta nire bizitzako garai bat besteei laguntzen ematea erabaki nuen; hau da, nire denbora eta maitasuna nik baino gehiago behar dutenei ematea erabaki nuen. Beste kultura bat ezagutzeko kuriositatea sortu zitzaidan. Hemengo eskolatan ez dute ia ezer, eta ikusi nahi nuen zelan egiten duten lan egoera horretan. 2010ean Estatu Batuetan izan nintzen urtebetez, eta bertan eman ditut azken lau urteetako udak. Au pair egon

izan naiz, eta bertako familiak leku honi buruz berba egin zidan. Hau ezagutzeko irrikaz negoen, eta argi nuen aukera eta garai ezin hobea zela betidanik nahi izan dudana egiteko.

**Zelan deskribatuko zenuke herrialdea?**

Hegoafrikako hegoaldeko kosta osoan zehar bidaiatu dut, eta denbora da desberdina. Paisaia benetan ikusgarriak ditu Hegoafrikak, baina zuri eta beltzen arteko desberdintasunak alde markatzen du, haien arteko kulturak guztiz desberdinak direlako. Gu Botha's Hillen, Durban (KwaZulu-Natal) hiriburutik 45 minutura, bizi gara, eta gure herrixka pertsona beltzen auzoz inguratuta dago. Hamar minutuko errepide batek banatzen gaitu gertuen dagoen herritik, eta gure auzoko eta herri horretako pobrezia eta aberastasunaren arteko desberdintasuna itzela da. Adibidez, neu bakarrik ezin naiz korrika egitera joan, oso arriskutsua delako; bortxaketa kasu asko daude, eta delinkuentzia kopuru handia ere badago. Zuria izategatik aberatsa naizela

uste dute. Gainera, pertsona batzuen ustez eta kultura zuluaren arabera, birjinekin sexu harremanak izanez gero, hiesa osatu egiten da. Horregatik, 14 urtetik beherako neska gazteen %80 bortxatu egiten dituzte, eta %70 haien familiako kideek. Zuluak sorginkerian ere sinesten dute, eta lehiakortasun nabaria dago familien artean. Horrelakoak dira egunero heltzen zaizkidan datuak, guztiak aurrekoak baino sinestezinagoak.

**Hezitzaile lanetan zabilta. Zelakoa da zure lana?**

Hona etorri aurretik adostu genuen gure umeak joaten ziren eskolara joango nintzela laguntzera, baina egun bitan joan, eta ezin izan nintzen bueltatu. Eskola horretako egoera ez zen normala. Irakasleek eserita ematen zuten egun osoa, ez zuten ezer irakasten, eta zigorrak hiru orduz lurra zulatzea eta gela guztiak garbitzea izaten ziren. Hezkuntza berezia behar zuten ikasleak hormari begira egoten ziren, irakasle gehienak desageratu egiten ziren, eta ikasleak bakarrik uzten zituzten. Hori ikusita,

behera etorri nintzen, eta, beste boluntario batez batera, txosten bat idaztea erabaki nuen, egoeraz informatzeko. Bertako zuzendariak ez zekien zer zen gertatzen zena, eta, ikasturtea hastear zegoela, eskola itxi zuten, dena berritzeko denbora eta diru faltagatik. Horregatik, gure eskola zabaldu behar izan dugu: iKhetheko (www.ikhethelo.org). Bi irakasle gehiagotik 4 eta 14 urte bitarteko hogeik ikasle hezten ditugu. Ni izendatu naute eskolaren arduradun, eta orduak eta orduak ematen ditut guztiak ondo jarrai dezan. Nigan dute konfiantza proiektu hau aurrera eramateko, eta, presio handia sentitzen badut ere, umeak eskolara pozik datozela ikusten dut, eta horrek aurrera jarraitzen laguntzen dit. Gainera, arratsaldeetan DBHko ikasleei laguntzen diet etxeko lanekin, eta arratsaldero haiekin esertzen naiz ordubetez, irakurtzen dutela ziurtatzeko. Asteburuetan hainbat ekintza antolatzen ditut, umeak aspertu ez daitezen; Gehien gustatzen zaidana, ordea, dohaintzak egitea da, komunitatean zein auzoan. Janaria,

arropa eta jostailuak ezer ez duten umeen artean banatzea oso gogoko dut.

**Hezkuntzak zelan funtzionatzen du hor?**

Pertsona zuri eta beltzen arteko desberdintasuna oso handia da Hegoafrikan, eta eskolekin gauza bera gertatzen da. Desberdintasun handia dago eskola publiko, pribatu eta auzoetako eskolen artean. Auzoetako eskolako irakasleak oso-oso alferrak dira, material gutxi dute, eta ohituta daude ezer ez egitera. Ez dituzte oinarriko gauzak ere irakasten, eta ikasleak egun-pasa joaten dira bertara. Gure herrixkako nerabeak eskola desberdinetara joaten dira.

**Zeintzuk dira zure asmoak?**

Goiz da etorkizuneko planak egiteko; orain dela lau hilabete heldu nintzen, eta urte erdi baino gehiago izango naiz hemen. Dena dela, iKhetheloko jabe eta langileek datorren urte osoan hemen jarraitzeko proposamena egin zidaten aurreko hilean. Oraindik ez dut erabaki finkorik hartu nahi, baina, egia esan, leku eta pertsona hauek maiteminduta naukate, eta zaila da ezetz esatea, behar duten laguntza zelakoa den ikusita. Denbora aurrera joan ahala hartuko dut erabakia; baina, edozein dela ere, Elorriora bueltatuko naiz, bisitatxo bat egitera, behintzat.



# HAURTZAINDEGIRAKO ONARPENA 2015-16

Matrikulazio prozesuak  
zabalik jarraitzen du:



- 2013. urtean jaso, eta gure ikastetxeko urte berrako gaitzen matrikulatu gabe dauden urteko familien.
- 2014. urtean jasotako urteko familien.
- 2015. urtean zehar jasotako edo jasoko diren urteko familien.

## Matrikulen inguruko informazio eta kudeaketa

- Ikastetxeke idazkaritzan 08:00etatik 13:15era eta 14:30etik 18:00ak bitartean.
- Nobere neurriko informazioa jaso nahi izanez gero:

Tfnoa.: 946 810 050

**Mapi Zugarratzen** Hezkuntza Proiektua Ext.:105 [mapi@durangojesuitak.org](mailto:mapi@durangojesuitak.org)  
Instalaketarako ikasketak  
Banako-Banako ebentzioak

**Kontzi Zugadi** Informazio orokorra Ext.:105 [kzugadi@durangojesuitak.org](mailto:kzugadi@durangojesuitak.org) Gestio  
**Gotzone Bosañez** Aurrerako izen-ematearen kudeaketa Ext.:151 [gbosanez@durangojesuitak.org](mailto:gbosanez@durangojesuitak.org)

## ZERGATIK DURANGOKO JESUITAK?



- Erakunde eragun eta abertzaile gaita
- Gure hezkuntza erakundeak 18k 10 urteko bitartean ikasleak dit: Christ, etc.
- Bako Kristoaren inguruko proiektuak bitartean...
- Gure hezkuntza erakundeak ikasleak heziketa berriak ematen ditu.
- Gure ikasleak ikasleak (Euzko Jaurlaritzak Unibertsitateak 2013. urtean) 9001 eta 9014001. ikasleak kudeatzen ditu.)
- Dikugun ikasle heziketa erakundeak eta ikasleak.
- Dikugun ikasle heziketa erakundeak eta ikasleak.
- Hitzoratuak gure heziketa erakundeak bitartean.









# “Etxean jatekoa prestatzen, ardo kopa bategaz: hor nago inon baino hobeto”

Zigor Iturrieta sukaldaria hainbat urtetan ibili da goi mailako sukaldarien jabetxeetan lanean

**> AKUILUA** Martxel Zubia Zigor Iturrieta Eubakoa da (Zornotza), eta EITB-ko ‘Txoriene’ programako sukaldaria da: sukaldaritzatik du gustuko. Gainera, ‘trail running’ modalitateko korrikalaria ere bada.

**Leioan egin zenituen sukaldaritzatik ikasketak. Betidanik gustatu izan zaizu sukaldaritzak?**

Bai, Leioan egin nituen sukaldaritzatik ikasketak. Kurutzia ikastolan ikasten nuenean, eguerdian sukaldaria joaten nintzen, sukaldaritzak laguntzera. Ez dakit gustatzen zitzaidalako joaten nintzen ala, sukaldaritzak lagunduz gero, gustuko nuen janari gehiago ematen zidatelako. Etxean ere ibiltzen nintzen, txikia nintzen, sukaldaritzak aitagaz. Betidanik jakin izan dut sukaldaria izango nintzela.

**Axpeko Etxebarri jabetxean eta Bilboko López de Haro jabetxean ere lan egindakoa zara, besteak beste.**

Bai, beste hainbat jabetxeren artean horietan ere lan egin dut. Urte gehien Axpen egin ditut sukaldari. Baina, esaterako, Martin Berasategiren jabetxean bi urte igaro nituen, Zuberoa jabetxean urtebete egindakoa naiz, eta Frantziara ere joan nintzen, orduko munduko bigarren jabetxerik onenean Michel Gerard-ekin lan egitera. Baina beste hainbat eta hainbat jabetxetan ere egon naiz. Egia esanda, oso polita da horrelako jabetxeetan lan egitea, baina oso gogorra, aldi berean. Juantxu jabetxean 16-17 urte-

gaz hasi nintzen uda sasoiaren joaten, lagunak parrandan zebiltzan bitartean, eta astebururorako lan egitea tokatu izan zait; nahiko gogorra izaten da hori. 2000. urtean nekatu egin nintzen hainbeste lan egiteaz, balantza batean jarri nituen nire bizitza soziala eta sukaldaritzak. Hor erabaki nuen catering enpresetara pasatzea.

**Azkeneko urteotan Arrasateko Auzo Lagun catering enpresan ibili zara lanean. Janari asko mugitzen da bertan?**

Horrelako catering enpresak janaria egiteko fabrikak dira. Auzo Lagunek, esaterako, egunean 17.000 bazkari inguru ematen ditu. Sukaldariak ginenok egunero zerbait desberdina egiten genuen, baina laguntzaileak zortzi ordu egoten ziren solomoa ogi arrailetan pasatzen. Cateringetan ere lan egin behar da, baina egunean zortzi ordu egin, eta asteburuak libratzen nituen; desberdina zen, jabetxe batean lan egiteagaz alderatuz gero.

**Badaramazu denbora bat Euskadi Irratiko ‘Hiri gorrian’ saioan parte hartzen. Orain, gainera, ‘Txoriene’ sukaldaritzak saioan ikusiko zaitugu.**

*Hiri gorrian* irrati saiora joaten jarraitzen dut, baina *Txoriene* telebista saioan ere hasi naiz, bai. Irratian bi urte inguru daramatzat hizketan, eta, astean behin izaten denez, ez zait ezer kostatzen joatea. Gainera, oso gustura parte hartzen dut bertan. Telebistako *Txoriene* saioan hasteko aukera bat-batean agertu zitzaidan. Hau-

taproba zabaldu zutela esan zidaten, eta hara joan nintzen. Hautaproba horretan patata tortila bat egin behar genuen, eta, gainera, baita ordu erdiz hitz egin ere. Joan beharra nuela pentsatu nuen, hitz egitea gustatzen zaidalako.

**Kozinatu ala korrika egin, zer nahiago duzu?**

Zaila da esatea. Etxean, jatekoa prestatzen, nire irratiaz eta ardo kopa bategaz: hor nago inon baino hobeto. Korrika egitea nire pasioa da, astean bostsei egunetan entrenatzen naiz, baina kozinatu egunero egiten dut. Atzo, adibidez, hamar orduz grabatzen egon eta gero, etxera heldu, eta korrika egitera joan nintzen: durango inguruan buelta bat eman, dutxatu, eta lasai asko geratu nintzen etxean.

**Duela gutxi arropa marka batek fitxatu zaitu, eta sareko blog batean “beterano handizat” jarri zaituzte.**

Badakizu zer den txarrena? Kronika hori ni neuk idatzi nuela, blogaren jabeak horrela eskatu zidalako, eta kopia egin zutela. Fitxaketa berriaren inguruan kronika txiki bat egiteko eskatu zidaten. Hasi nintzen, 2008. urtean, hainbat proba irabazi nituen, baina 2011. urtetik aurrera hiru urte eman nituen ezer irabazi barik, eta orain berriro hasi naiz postu onak egiten.



## LAUHORTZA

**AITOR AURREKOETXEA**  
EHUko irakaslea



### Sormenaren muga berriak

Garai batean, *El caso* aldizkariak ohiz kanpoko unibertsoa existitzen zela kontatzen zigun. Han agertzen ziren berriak gure ingurutik urrun suertatzen zirela pentsatzen genuen.

Gaur egun, berriz, teknologia berriei eta, batez ere, sare sozialei esker, hemendik kilometro askora gertatzen denak ematen du hori bera gure alboan gertatzen ari dela; fenomeno hau oso bitxia da, eta bere inplikazio psikologiko zein sozialak oraindik aztertu barik daude.

Izan ere, eta arestian aipatutakoari helduz, hau guztia espektakulu postmodernoarekin lotu genezake, bereziki behin eta berriro azpimarratutako irudiaren inflazio horrek gure gizartearen esperientzia estetikoaren dislokazioarekin harreman estua du. Halaxe da; adibide bat jartzearen, gure idazleen irudimenari lotutako atrofia itzela ematen ari da, edo, beste era batera esanda, arteak eta literaturak, paradigma berezi honetan, muga berriak eta ezezagunak dituztela erraz baiztatzeko.

Jakina, fikzioa eta errealitatea nahasturik agertzen zaizkigunean inongo zalantza barik galtzaile ateratzen dena fikzioa da.

Azken finean, fikziozko artelan batean arretoa mantentzea oso zaila egiten zaigu errealitatea fikzio horrek eskaintzen diguna baino askoz interesgarriagoa bada.

Ezaugarri hauek nahitaez kontuan hartu beharko genituzke, sormenaren krisialdiaren inguruko hausnarketa eginkorra egin nahi badugu.

Egia eta sinesgarritasun kontuak alde batera utzita, sormenak beharko lukeen xarma hori galtzen doa hiperrealitateak dena okupatzen duelako. Nire ustez, aura horren galera izango litzateke kulturari globalizazioak ekarritako elementurik kaltegarria.



**Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194